

Amnistiaren aldeko eta errepresioaren aurkako mugimendua

AZKEN ASTEKO ERREPRESIOAREN INGURUKO IRAKURKETA/LECTURA SOBRE LA REPRESIÓN DE LA ÚLTIMA SEMANA

2017ko azaroaren 06(e)an

1 [EUS]

USTEZKO ETAKIDEEN ATXILOKETA ALEMANIAN

Urriaren 27an Alemaniako Poliziak Iñigo Gulina eta Mikel Barrios nafarrak atxilotu zituen. Iñigo Gulina lehenago ere preso egondakoa da eta Mikel Barriosek 2008an sarekada polizial bati ihes egin zion.

Atxiloketa hauek argiki erakusten dute zein den «Nazioarteko Komunitatea» deritzan horrek mantentzen duen jarrera Euskal Herriak Frantzia eta Espainiako Estatuekin bizi duen gatazkaren aurrean, aipatutako bi Estatu horien errepresioarekin bat egitekoa, alegia.

Ez dezagun ahaztu Europar Batasuna elkarte kapitalista dela eta bera osatzen duten Estatu guztiek interes ekonomiko eta, ondorioz, politiko amankomunak dituztela. Euskal Herriaren independentziaren aldeko borroka eta iraultza sozialistaren aldekoa bat eta bakarra izan beharko dute nahita nahiez.

Hori dela eta, soilik amnistia politikoaren gauzape osoak, herri honen askatasun demokratiko minimoen lorpen gisa ulertuta, bermatuko du gure herriaren alde borroka egiteagatik beste inor ez atxilotzea. Lorpen horren ezean militante politiko hauen aurkako jazarpena bizi osorakoa izango da.

12 GAZTE AUDIENTZIA NAZIONAL ESPAINOLAREN AURREAN

Urriaren 30ean 12 gaztek salbuespen epaitegiaren aurrean deklaratu behar izan zuten martxoaren 11n Iruñean jazotako istiluetan parte hartzea leporatuta. Guztira 21 dira «ikertutako» gazteak, horietako hiruk kartzelan daudelarik ordutik (garaian honako irakurketa egin genuen poliziak eragindako istiluen inguruan: <http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/03/poliziak-irunean-sortutako-istiluen.html>).

Nola ez, gure elkartasuna eta babesa 21 gazte hauei, eta gurea bai zintzoa eta baldintzarik gabekoa. Baldintzarik gabeko elkartasuna adierazten dio beti gure mugimenduak errepresioa pairatzen duenari, defendatzen dituzten dinamikekin ados ez gaudenean ere. Hau esan beharra dugu, ez leporatzen dieten dinamikatik aldentzen garelako (gu dinamika horren parte izan garelako, inolaz ere haren dinamizatzailea kriminalizatu nahi gaituztenek etengabe adierazten

duten bezala), baizik eta beste batzuek, eta Sortu alderdiari buruz ari gara, errepresio hau gure mugimenduari eraso egiteko erabiltzen ari direlako martxoaren 11tik bertatik.

Auziperatze hauen aurrean Sortuk bere jarrera adierazteko atera zuen oharrak lau puntu zituen, horietatik luzeena martxoaren 11ko manifestazioari kritika egiten diona. Horrelako dinamikak errepresioari aurre egiteko orduan eraginkorrak ez direla dio eta Kataluniako prozesua jartzen du eredutzat, horrek dagoeneko 10 preso politiko eragin dituela (eta Sorturen jarrera desobedientea izatetik oso urrun dagoela) alde batera utziz.

Lehenengoz eta behin esan beharra dugu errepresaliatuen militantzia ereduari erasotzeko errepresioa baliatzea jarrera guztiz zitala dela, eta elkartasuna baldintzarik gabekoa izan ezean ez dela elkartasuna izango, oportunitate politikoa baizik.

Gure mugimenduak ez du Sorturen aurka erabili Majarenasen eta Troitiñoren kasuetan epaitegien aurrean sinatutako dokumentuek ez dutela balio izan hauek aske gelditzeko, ezta preso gaixoekiko eskatu den kaleetako zein kartzetako borroka ezak ez duela preso gaixo bakar bat ere ateratzeko baliogarria izan, baizik eta askapen borroka lokartzeko balio izan duela. Gure mugimenduak ez du erabili @erreharriaren espetxeratzea epaitegietako akordioak beti ez direla baliogarriak erakusteko, eta ez du orain arte esan Oreretako gazteen gurasoek herri biolentziaren aurka egindako adierazpenek ez zutela balio izan haien semeak espetxetik ateratzeko, ezta Altsasukoen despolitizazioak eta «proporzionaltasun» eskaerek ere ez dutela balio izan 60 urterainoko espetxe eskariak ekiditeko.

Errepresaliatu politikoek gure elkartasuna dute gure babes politikoa ez dutenean ere, eta defendatzen jarraituko dugu errepresioa saihesteko modurik desegoki eta kaltegarriena etsaiaren jokoan sartzea dela.

KATALUNIAREN KONTRAKO ERREPRESIOA

Aste honek Kataluniako Errepublikako Gobernuko 8 kideren espetxeratzea utzi digu Països Catalans-en zati baten independentzia aldarrikatzea leporatuta. Lehen adierazi dugun moduan, errepresioaren aurrean elkartasuna eta preso politiko hauen askatasunaren galdegitea, gainontzeko preso politikoena bezalaxe.

Espetxeratze hauek modu gordinean utzi dute agerian Espainiaren proiektua indarkerian oinarritzen dela. Indarkeriaren bitartez sortu zuten Espainia eta indarkeriaren bitartez mantentzen dute. Era berean agerian gelditu da askatasuna ez dela arrazoi kontu bat, indar kontu bat baizik, eta pazifismo burgesaren pentsaera hegemonikoa izaten jarraitzen duen bitartean herri zapalduen borondatearen muga zapaltzailearen botetan egongo dela beti. Alternatiba iraultzailerik gabe ez dago urrunago ailegatzetik.

Bestetik, adierazgarria izan da PDeCat eta ERC bezalako alderdiek amnistiaren aldarrikapena egin izana. Aldarrikapen honi heldu izanak pozten gaitu, eta zalantzarik ez dugu errepresio orokorraren testuinguru honetan gero eta gehiago izango direla amnistiaren aldarrikapenera batuko diren sektoreak. Alabaina, gure mugimenduak azpimarratu beharra dauka preso politikoaren existentzia zaharra dela Estatu espainolean. Komunistak, anarkistak edota euskal independentistak, baina ehunka dira Estatu espainolak bahituta mantentzen dituen preso politikoak. Ez dugu onartuko Govern-eko kideak espetxeratu dituen sistemaren aurka gehien arriskatu dutenak terroristak direla esatea biolentzia erabili dutenaren aitzakiapean.

Gure mugimenduak amnistiaren alde azaroaren 18an burutuko duen manifestazio nazionalan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dio askatasun osoaren aldekoa eta faxismoaren kontrakoa sentitzen den orori.

RAPEROEN AURKAKO EPAIKETA

Espainiako Audientzia Nazional faxistak 12 rapero epaitu zituen azaroaren 1ean haien abestietan «terrorismoaren gorazarrea» egitea leporatuta. Haietako bakoitzarentzat 2 urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak.

Euskal Herriari hainbatetan elkartasuna adierazi dioten artistak dira oraingoan errepresioa pairatzen ari direnak, kasu honetan komunismoa defendatzeagatik, poliziaren gehiegikeriak salatzeagatik, sozialdemokrazia kritikatzegatik edota «trantsizioa» delakoaren iruzurraren aurka kantatzeagatik.

Ez dugu ahaztu nahi Estatu espainolaren diktadurapean bizi den langileria osoak, bizi den herrian bizi delarik, pairatzen duela errepresioa. Gure elkartasun osoa Euskal Herritik.

ERREHARRIAREN ESPETXERATZEA ETA BERRIROHEMENEN ZIGORRAREN BERRESPENA

Alfredo Remírez (@erreharria) urtebeterako espetxeratu duten egun berean, Andeka Juradok (@berrirohemen) jakin du Audientzia Nazionalak ezarritako urtebete eta sei hilabeteko zigorra berretsi diola Epaitegi Gorenak.

Alfredoren kasuan, Amurrioko jaietan bi preso politikoren argazkia ordezkatzeko zuten panpinak erakusteagatik urtebetez kartzelaratu dute. Elkartasuna delitua da faxistentzat. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak bat egiten dut Alfredok presoen alde egin zuen aldarrikapenarekin eta bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi dio.

Bestetik, Andeka zigortu egin dute losu Uribetxeberria zenari sare sozialetan «Agur eta ohore» esaldia eskaintzeagatik. losu espetxean gaizki artatutako gaixotasun larri baten ondorioz hil zen, kartzelak hil zuen. Andekak egindako omenaldi xumea berea egiten du mugimendu honek eta epaiketan erakutsitako jarrera duina azpimarratu nahi dugu (hona hemen epaiketaren kronika: <http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2016/12/akusatu-batek-torturaren-inpunitatea.html>).

Alfredo eta Andekaren kasuak errepresaliatu politikoen inguruan ezartzen duten zentsuraren adierazgarri argiak dira. Honen aurrean, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak oztopo guztien gainetik errepresaliatuen alde lanean jarraitzeko deia egin nahi du. Ez gaituzte isilduko!

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendu

Euskal Herria, 2017ko azaroaren 5a

2 [EUS]

DETENCIÓN DE PRESUNTOS MIEMBROS DE ETA EN ALEMANIA

El 27 de octubre la Policía alemana detuvo a los navarros Iñigo Gulina y Mikel Barrios. Iñigo Gulina estuvo preso anteriormente y Mikel Barrios huyó de una redada policial en 2008.

Estas detenciones demuestran claramente cuál es la actitud que la llamada «Comunidad Internacional» mantiene ante el conflicto que vive Euskal Herria con los Estados de España y Francia, que es la de alinearse con la represión de estos.

No olvidemos que la Unión Europea es una asociación capitalista y que todos los estados que la conforman tienen intereses económicos y, por lo tanto, también intereses políticos comunes. La lucha por la independencia de Euskal Herria y la lucha por la revolución socialista deberán ser una misma obligatoriamente.

Por ello, sólo la consecución de la amnistía política total, entendida como la consecución de las libertades democráticas mínimas, garantizará que no se vuelva a detener a nadie por luchar por nuestro pueblo. Sin ella, la persecución contra estxs militantes polítcxs será de por vida.

12 JÓVENES ANTE LA AUDIENCIA NACIONAL ESPAÑOLA

El 30 de octubre 12 jóvenes tuvieron que declarar ante el tribunal de excepción acusados de participar en los incidentes del 11 de marzo en Iruñea. En total son 21 los jóvenes «investigados», permaneciendo en prisión desde aquel día tres de ellos (entonces hicimos esta lectura política sobre los incidentes provocados por la policía: <http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/03/ante-los-incidentes-provocados-por-la.html>).

Cómo no, nuestra solidaridad y apoyo a estos 21 jóvenes y, además, la nuestra es una solidaridad sincera e incondicional. Nuestro movimiento siempre muestra su solidaridad incondicional a quien sufre la represión, aún cuando no estamos de acuerdo con las dinámicas que defienden. Debemos decir esto, no porque nos desmarquemos de las dinámicas de las que les acusan (ya que hemos sido parte de esa dinámica, de ninguna de las manera dinamizadores de ella como quienes nos quieren criminalizar aseguran constantemente), sino porque otros, y nos estamos refiriendo al partido Sortu, están utilizando esta represión para atacar a nuestro movimiento desde el mismo 11 de marzo.

La nota publicada por Sortu para marcar su posición ante estas citaciones tenía cuatro puntos, el más largo de ellos para criticar la manifestación del 11 de marzo. Dice que dinámicas como esa no son eficaces para hacer frente a la represión, y pone como modelo el proceso de Catalunya obviando que éste ya se ha cobrado 10 presos políticos (y que la actitud de Sortu dista mucho de ser desobediente).

En primer lugar debemos decir que valerse de la represión para atacar al modelo de

militancia de los reprimidos es una actitud absolutamente mezquina y que, si la solidaridad no es incondicional, no será solidaridad sino oportunismo político.

Nuestro movimiento no ha utilizado contra Sortu que, en los casos de Majarenas y Troitiño, los documentos firmados ante los tribunales no han servido para que estos quedasen libres, ni que la inacción pedida a la calle y a las cárceles respecto a lxs presxs enfermxs no ha servido para liberar ni a unx solo de ellxs, sino para adormecer la lucha de liberación. Nuestro movimiento no ha utilizado el encarcelamiento de @erreharria para demostrar que los acuerdos judiciales no siempre son válidos, y hasta ahora no ha dicho que las declaraciones de los padres y madres de los de Orereta en contra de la violencia no sirvieron para sacar a sus hijos de la cárcel, ni que la despolitización de los de Altsasu y las peticiones de «proporcionalidad» no han servido para evitar peticiones de cárcel de hasta 60 años.

Lxs represaliadxs políticxs tienen nuestra solidaridad incluso cuando no tienen nuestro apoyo político, y seguiremos defendiendo que el modo más inadecuado y perjudicial para evitar la represión es entrar en el juego del enemigo.

REPRESIÓN CONTRA CATALUNYA

Esta semana nos ha dejado el encarcelamiento de 8 miembros del Gobierno de la República de Catalunya por declarar la independencia de una parte de los Países Catalans. Como decíamos anteriormente, solidaridad ante la represión y la exigencia de que liberen tanto a estxs como al resto de presxs políticxs.

Estos encarcelamientos han dejado al descubierto de una manera cruda que el proyecto de España se basa en la violencia. Mediante la violencia crearon España y mediante la violencia la mantienen. Asimismo, ha quedado al descubierto que la libertad no es un asunto de razón, sino de fuerza, y que mientras el pacifismo burgués siga siendo el pensamiento hegemónico, el límite de la voluntad de los pueblos oprimidos seguirá para siempre en las botas del opresor. Sin alternativa revolucionaria no hay posibilidad de llegar más lejos.

Por otro lado, es significativo que partidos como PDeCat y ERC hayan reivindicado la amnistía. Que hayan hecho suya esta reivindicación nos alegra, y no tenemos duda de que en este contexto de represión general cada vez serán más los sectores que se sumarán a la reivindicación de la amnistía. Sin embargo, nuestro movimiento debe destacar que la existencia de presxs políticxs es vieja en el Estado español. Comunistas, anarquistas o independentistas vascxs, pero son cientos lxs presxs políticxs que el Estado español mantiene secuestradxs. No aceptaremos que se llame terroristas bajo la excusa de que han utilizado la violencia a quienes más han arriesgado contra el sistema que ha encarcelado al *Govern*.

Nuestro movimiento quiere hacer una invitación a participar en la manifestación que llevará a cabo a favor de la amnistía el 18 de noviembre, a toda persona que se sienta favorable a la libertad plena y contraria al fascismo.

JUICIO CONTRA LOS RAPEROS

La fascista Audiencia Nacional española juzgo el 1 de noviembre a 12 raperos bajo la acusación de hacer «apología del terrorismo» en sus canciones. El fiscal solicita para cada uno

Azken asteko errepresioaren inguruko irakurketa/Lectura sobre la represión de la última semana de ellos 2 años de cárcel.

Quienes ahora están sufriendo la represión son los artistas que tantas veces han mostrado su solidaridad con Euskal Herria, en este caso por defender el comunismo, por denunciar los abusos policiales, por criticar a la socialdemocracia o por cantar en contra de ese fraude llamado «transición».

No queremos olvidar que toda la clase trabajadora que vive bajo la dictadura del estado español, viva en el pueblo que viva, sufre la represión. Toda nuestra solidaridad desde Euskal Herria.

ENCARCELAMIENTO DE EREHARRIA Y CONFIRMACIÓN DE CONDENA A BERRIROHEMEN

El mismo día que han encarcelado a Alfredo Remírez (@erreharria), Andeka Jurado (@berrirohemen) ha sabido que el Tribunal Supremo ha ratificado la condena de un año y seis meses que la Audiencia nacional le impuso.


En el caso de Alfredo, le han encarcelado para un año por mostrar en fiestas de Amurriodo dos muñecos que representaban la foto de dos presos políticos. La solidaridad es delito para los fascistas. El Movimiento Pro Amnistía hace suya la reivindicación que Alfredo hizo a favor de los presos y quiere mostrarle su solidaridad y su apoyo.

Por otra parte, han condenado a Andeka por dedicar la frase *Agur eta ohore* (Salud y honor) en las redes sociales al fallecido losu Uribetxeberria. losu falleció como consecuencia de una enfermedad contraída y mal tratada en prisión, a losu lo mató la cárcel. Este movimiento hace suyo el humilde homenaje que Andeka le brindó a losu y quiere destacar la actitud digna que mantuvo en el juicio (aquí la crónica del juicio: <http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2016/12/un-acusado-denuncia-en-la-audiencia.html>).

Los casos de Alfredo y de Andeka son fieles ejemplos de la censura que se aplica sobre lxs represaliadxs políticxs. Ante ello, el Movimiento Pro Amnistía llama a seguir trabajando a favor de estxs represaliadxs por encima de todos los obstáculos. ¡No nos callarán!



Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión

En Euskal Herria, a 5 de noviembre de 2017

 Permalink:
(QR code, URL corta, URL)



<https://goo.gl/9xGBCr>
<https://www.boltxe.eus/azken-asteko-errepresioaren-inguruko-irakurketalectura-la-represion-la-ultima-semana/>

 <https://www.boltxe.eus>
 boltxe@boltxe.eus
 <https://www.boltxe.eus/denda>
(Boltxe Liburuak)
 <https://twitter.com/boltxe>
 <https://fb.me/boltxe.kolektiboa/>